

**JULIO CARO BAROJA**

**REAL ACADEMIA ESPAÑOLA-KO SARRERA HITZALDIA**

Iragan Ekainaren 15ean eman zuen Julio Caro Baroja jaunak, Euskaltzain ohorezkoak, Real Academia Españolan sarrera hitzaldia.

Egun hartan Real Academia Española-ko aretoa jendez bete zen eta han ziren Euskal Herriko zenbait agintari eta erakunderen ordezkari, besteak beste, Eusko Ikaskuntza, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Madrid-eko Euskal-Etxekoak eta Euskaltzaindia.

Julio Caro Baroja "Género biográfico y conocimiento antropológico" gaiaz mintzatu zen bere hitzaldian eta Manuel Alvar López jaunak eman zion erantzuna, Caro jauna pertsona bezala aurkeztuz eta bere lan eta irakaskuntzan merituak goretsiz.

*J. San Martin*

*1986-IX-26*